

Ordizian, 2016ko martxoaren 7an, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko deialdian, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	EH Bildu Ordizia
Mila Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

Gonbidatu gisa azaldu da baita ere IRABAZIren ordezkaria den Carlos Gonzalez Astiz jauna.

Behin-behineko IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.-2016ko otsailaren 22ko ohiko bilkurako akta onartzea.
- 2.- 6.000 €tik gorako fakturak
- 3.- "UPABI" 12 HIEko urbanizazio proiektuaren hasierako onarpena.
- 4.- "UPABI" 12 HIEko 12.1 Exekuzio Unitatearen Birpartzelazio proiektua onartzea.
- 5.- Txostenak eta hainbat eskari.
 - 6.000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.
 - Fisikako Nobel sariduna den Albert Fert irakaslea Honoris Causa Doktore izendatzeko hautagaitzari babesa ematea.

GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:

- .- Alkatearen aurkako pintadak.
- .- Herri galdeketaren inguruko oharra. Prozedura protokoloa.
- .- Usunbillagako espedienteari buruzko informazioa.

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 15:15

AMAIERA ORDUA: 16:40



Batzordeburu jaunak hasiera eman dio saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.-2016ko otsailaren 22ko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

“Ohiko deialdian egin zen 2016ko otsailaren 22ko aktaren zirriborroa onartzea”.

Aho batez onartu da.



2.- 6000 €tik gorako fakturen zerrenda.

.- 11. zerrendaren berri ematen da, kopurua: 31.474,65

.- 14. zerrenda, kopurua: 10.665,00

Sukia andreak ondorengo fakturei buruzko informazioa eskatu du:

- Konpostaren faktura.
- ELHUYARren faktura.

Horren berri eman zaie.

Aldeko irizpena jaso dute.



3.- “UPABI” 12 HIEko urbanizazio proiektuaren hasierako onarpenenerako irizpena.

CAF enpresak aurkeztutako “UPABI” 12 HIEko urbanizazio proiektuaren berri ematen da.

2014ko urriaren 1ean udal Arkitekto Teknikoak urbanizazio proiektu honen aldeko txostena egin zuen.

2014ko urriaren 6ko Obra eta Hirigintza Delegazioak aldeko irizpena eman zion.

Honako hau ikusita, "UPABI" 12 HIEko urbanizazio proiektuaren hasierako onarpena proposatzen da.

Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 196 artikuluan oinarrituta, hasierako onarpena jendurrean GAOn eta Lurralde Historikoko egunkari hedatuenetako batean argitaratuko da hoguei egunean zehar azter daitezzen eta alegazioak aurkezteko aukera egon dadin.

Informazio publikoko tramitea amaitzen denetik bi hilabeteko epea egongo da behin betiko onartzeko. Epe hori amaitu eta ez bada ebazpenik ematen, ebazpena emantzat hartuko da administrazio isiltasunagatik.

Erakunde sektorialen baimenak behar izanez gero (Urak... etab.), ofizioz egintza bat bideratu ahal izango da bi hilabeteko epe hori eteteko erakunde sektorialek baimena ematen duten bitartean.

Hasierako izaeraz onartzeko aldeko irizpena jasotzen duen urbanizazio proiektua jendurrean egongo da 20 eguneko epean GAOn eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedadura handieneretako duen egunkari batean argitaratuta.

Aldi berean URAK, ADIF eta ERREPIDEEl egokitzen zaizkien txostenak eskatuko zaizkie.

Aho batez eman zaio aldeko irizpena.



2.- "UPABI" 12 HIEko 12.1 Exekuzio Unitatearen Birpartzelazio proiektua onartzeko irizpena.

CAF enpresak aurkeztutako "UPABI" 12 HIEren 12.1. Exekuzio Unitatearen birpartzelazio proiektuaren berri ematen da.

2014ko urriaren 1ean udal Arkitekto Teknikoak proiektu honen aldeko txostena egin zuen.

2014ko urriaren 6ko Obra eta Hirigintza Delegazioak aldeko irizpena eman zion.

Hala ere, Idazkariak adierazi du, tramitatu beharreko espedientea aztertu ondoren, CAF S.A.k ez dituela ondorengoak aurkeztu: unitatearen exekuziorako Ituntze Hitzarmena eta Lurzoru eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen arabera eska daitekeen %7ko abala ere ez ditu aurkeztu. CAFi eskatu behar zaio hitzarmena aurkezteko eta %7ko dagokion abalaren eraketa.

Ituntze hitzarmena hirigintza hitzarmen bat bezala izapidetu behar da, hau da, 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren arabera, Udaleko osoko bilkurak onartuko du eta jendurrean 20 egunetan izateko hitzarmenaren testu osoa argitaratuko da.



Mahai gainean geratu da proposamena ituntze hitzarmena onartzen den arte.



5.- Txostenak eta hainbat eskari

a) 6.000 €tik beherako fakturei buruzko informazioa.

8., 10. eta 13. zenbakiko fakturen zerrenden berri eman da.

Batzordeko kideek jaso dute horren berri.

.....

b) *Doctor Honoris Causa izendatzea.*

Julian Maria Gonzalez Estevez jaunak bidalitako idatziaren berri eman du Alkate jaunak. Bertan Ordiziako Udalari proposatzen dio babesa eman diezaiola Euskal Herriko Unibertsitateak ALBERT FERT irakaslea "Doctor Honoris Causa" izendatzeko hautagaitzari.

Hurrengo osoko bilkurarako prestatu akordioa.



6.- Galde-eskeak.

Alkate jaunak bertaratutakoei jakinarazi die larunbatean herriko hainbat tokitan bere aurkako pintaketak azaldu zirela eta larunbatean bertan ezabatzeko agindua eman zuela bere seme-alabek irakurtzen badakitelako.

Esan du ez dakiela honek jarraituko duen ala ez.

Moreno andrea Eguren jaunari zuzendu zaio eta esan dio Alkatearen aurkako pintaketak salatzeko plazan egin zen kontzentrazioan EH-BILDUKO 4 ordezkari ez zeudela lehenengo lerroan pintaketen aurkako idatzia sinatu zuten gainerako beste zinegotziak bezala.

Eguren jaunak erantzun dio esanez berak ezin izan zuela joan eta hara joan ziren taldeko beste 4 ordezkarietara galdetu beharko diela zergatik ez ziren egon gainerako zinegotziekin batera.

Adierazi du badakigula guztiok zein herritan bizi garen eta idatzia eta kontzentrazioa bezalako ekitaldiak... eta abar sua pizteko balio dutela.



Horrekin batera esan du horrelako ekintzak eztabaida edo kritika politiko moduan hartu behar direla.

.....

2) Herri galdeketaren inguruko oharra. Prozedura protokoloa.

Idazkariak jakinarazi du galdeketa egiteko prozedura eta funtzionamendu protokolo bat prestatu duela. Hondakinen Mahaiak oinarritzko testua egin ondoren Osoko bilkurak onartu zuen arren, galdeketa aurreko eta galdeketaren egun bereko jarduketak antolatu eta koordinatu behar dira hainbat zerbitzurekin.

Kopia banatu zaie kide guztiei.

.....

3) Eguren jaunak Usunbillagako espedienteari buruz galdetu du, exekuzio aginduaren baliogabetzari buruzko eta espedientearen atzeraeraginari buruzko informazioa eskatu du.

Idazkariak informazioa eman dio.

Eguren jaunak eta Sukia andreak espedienteko dokumentu batzuen kopia eskatzen dute.

Idazkariak eskatutakoaren kopia pasako die posta elektronikoz.



Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, alkate jaunak bilkura amaitutzat jo du. Behin-behineko idazkari naizen honek bilkuraren Akta jaso, eta horren egiaztapena egiten dut.

